

EDUKIAK

EDITORIALA

SOZIALIZAZIO Jarduerak

FAMILIEN Programa

BOLUNTARIOAK

HITZALDIA 20.11.26

KOMUNIKATUA

ELKARTE FEDERATUETAN

ZORIONAK eta URTE BERRI ON



Aragon kalea 11 –
Behea 01003

Vitoria-Gasteiz
945287392
675710820

info@fevapas.org

WWW.fevapas.org

22. BULETINA

2020KO ABENDUA

2020, COVID-19AREN URTEA ETA ENTZUTEKO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK, INOIZ BAINO IKUSEZINAGO

Annus horribilis

2019ari agur esateko, "Irisgarritasunari eta entzuteko desgaitasunari" buruzko txostena argitaratu genuen, eta agintariek, 2020an, proposatu genituen neurriak kontuan hartuko zituztela espero genuen.

Hala ere, aurten, ustekabeen harrapatu gaitu pandemia batek, Covid-19arenak, eta horrek munduko biztanleria osoarentzat oraindik dituen ondorio kaltegarriak.

Pandemia horrek are gehiago lagundu du entzuteko desgaitasuna duten pertsonak bakartzen konfinamendua dela-eta, maskarak erabiltzeagatik (ez dago bermeak emango dituen maskara gardenik), osasun-zerbitzuarekiko, Osakidetzarekiko, harremanetan telefono bidezko aukera soilik izateagatik, etab.

Irisgarritasun-arazoak arintzeko neurriak hartzeko eskatu diogu Administrazioari, eta hala egiten jarraituko dugu, epidemia honek arazo horiek areagotu baititu.

Horretan ari gara, eta horretan jarraituko dugu, datorren urteak, txertoaren berri onak ez ezik, gure kolektiboaren bizikaltatea hobetuko duten beste batzuk ere ekarriko dizkigulakoan.

Zorionak eta Urte Berri On!

José Montero

FEVAPASeko presidentea

SOZIALIZAZIO-JARDUERAK

2020AN

Covid-19ak eragindako pandemia eta horrek berekin ekarritako konfinamendua eta nahitaez bete beharreko protokolo eta neurriak **DIRELA ETA, FEVAPASek**, urtero bezala, ostatuak, garraioa, etab. antolatuta eta erreserbatuta izan arren, **AURREZ AURREKO sozializazio-jarduera guztiak BERTAN BEHERA UTZI** behar izan ditu aurten.

JARDUERA

ALTERNATIBOAK

ONLINE TOPAKETAK

Ordu eta erdikoak

*UZTAILAK 1,2 eta 3

*AZAROAK, 14

PARTE-HARTZAILEAK

Txiki eta gazte gorra
Aplikazio berrien,
dinamiken eta online
jokoen **BIDEZ**

Profesional **ADITUEKIN**,
laguntzako
BEGIRALEEKIN...

Eta federatutako
elkarteetako profesionalen
KOORDINAZIOA eta
FEVAPASeko
koordinatzailea



FEVAPASek elkarte
federatuak
KOORDINATU ditu
familia horiei arreta
eman eta
laguntzeko euren
baterako lanean.

BOLUNTARIOAK

Ezinbestekoak
FEVAPASen martxa
egokirako

FAMILIEN PROGRAMA 2020

Covid19ak ez gaitu geldiarazi.

Aurrez aurre edo modu birtualean, 2020an, Euskal Autonomia Erkidegoko **500 FAMILIA** baino gehiago artatu dira **FEVAPAS** osatzen duten hiru elkarteetan.

INFORMAZIO eguneratua, objektiboa, zabala eta zehatza

ORIENTAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

LAGUNTZA psikologikoa eta emozionala

GOGOETA-TALDEAK

Hainbat esparrutako profesionalen **KOORDINAZIOA**

AURKEZPENA administrazio publikoetan



ESKERRAK

Hiru elkarte federatuetako GURASO ordezkariak.
Aisialdiko **MONITOREEI**. Aurten taldea **BERRERAIKITZEN**
ari da

HITZALDIA FEVAPASeko FAMILIENTZAT

Azaroaren 26an, FEVAPASeko 35 gurasok eta profesionalek **“La Aventura de Leer – Crear hábitos de lectura en familia”** hitzaldian parte hartu zuten. Hitzaldia modalitate birtualean egin zen 18:00etatik 19:30era. Hizlaria Ana Belén Domínguez izan zen, Salamancako Unibertsitateko Hezkuntza Zientzietan doktorea. Eta hobetzeko gauzak dauden arren, batez ere online konexioari dagokionez, azken emaitza, jasotako balorazioen arabera, oso ona izan zen. **ERREPIKATUKO DUGU.**

KOMUNIKATUA

HOMOLOGATUTAKO MASKARA GARDENEI buruz euskal administrazio autonomikoaren aldetik erakutsitako desinformazioaren eta erantzunik ezaren **AURREAN, FEVAPASek, EGrekin batera**, izenburu hau duen komunikatua **LANDU** zuen: *BESTE BEHIN ERE, PERTSONA GORRAK –IKASLEAK, PAZIENTEAK– BIGARREN MAILAKO HERRITAR: “INKOMUNIKATUAK ETA IKUSEZINAK”.*



Komunikatu hori hedabideei eta gai honetan erantzukizuna duten Eusko Jaurlaritzako sailei **ZUZENDU ZIEN.**

Presentzia handia irratian, prentsan eta telebistan. INOLAKO erantzunik ez instituzio publikoen aldetik.

FEVAPASetik ARANSKI, ULERTUZ eta ASPASOR

LANEAN JARRAITZEN DUGU ezarritako legeak bete daitezzen eta haur eta gazte gorra eta haien senideak baldintza berberetan sar daitezzen bizitzaren esparru guztietan.

Bilerak honako hauekin:

Osasuna – Osakidetza: uztailaren 15ean eta azaroaren 30ean, Osakidetza zerbiztu “ez-presentzialen” arduradunekin.

Hezkuntzako sailburua: agenda formaletik kanpo, azaroaren 11n.

Euskal Gorra: baterako jardunak koordinatzen.

Foru-aldundiak, udalak eta bestelako erakunde publiko eta pribatuak. Elkarte federatuen eta Federazioaren beraren bitartez.


EDEKA: beste erakunde batzuen ordezkariekin koordinatutako lana.

AURRERA EGITEKO, ELKARREKIN HOBETO



COVID-19AREN ONDORIOZ BERRITZEA

COVID-19ak eragindako murrizketak direla eta, Ulertuz berritu egin behar izan da, eta prestakuntza, bilera eta lantegietako asko on line formatuan egin ditu.



Horren adibide dira azken bi hilabete hauetan etxeko txikientzat egin dituen sukaldaritzako eta eskulanetako lantegiak. Lehenik eta behin, egutegiak ezartzen duenez, azaroan Halloween lantegi bat egin zuen eta, ondoren, abenduan, Gabonetako beste bat. Esan behar dugu esperientzia oso ona izan zela. Txikiek jardueraz gozatu zuten eta elkarteko beste haur batzuekin harremanetan egon ziren, bestela ezinezkoa izango baitzen.

Etorkizun hurbilerako aurreikuspenek jardun-ildo beretik jarraitzera behartuko gaituztela dirudi. Beraz, lantalde teknikoa lanean ari gara ahalik eta ekintza berritzaileenak programatzeko. Ea gero eta familia gehiago animatzen diren!



KOMUNIKAZIOAN LAGUNTZEKO LIBRETAK



Osasun-neurri gisa maskarak nahitaez erabiltzeak gorra gehiago bakartu eta inkomunikatu ditu. ARABAKO GORRAK eta ASPASOR Arabako elkarteek 3 mezu oso erraz dituzten **libretak** egin **komunikazioa hobetu** nahi da. Libretetan, Mezu horiek dituzten orri eta entregatu daitezke- idazteko orri zuri grabatuko da horiek



dituzte. Horien bidez, **eta horretan lagundu** honako hauek daude: - zulatu batzuk, erraz erauzi nak, eta, amaieran, batzuk. Aurki, bideo bat zabaltzeko.

Badakigu ez dela irtenbidea, baina BAI laguntza bat, helburu horrekin egin baitziren. Behin betiko irtenbideek noizbait iritsi beharko dute, eta hala espero dugu arduradun eskudunen erabaki politiko eta teknikoetatik, maskara gardenen homologazioan eta osasunaren eta hezkuntzaren arloko beste neurri batzuetan.



BIDEO-ETA ARGAZKI-LANTEGIAK. IKASGELA IREKIA



Uztailean zehar, 13 urtetik gorako hemezortzi bat neska-mutilek bi lantegi egin zituzten COVID-19aren aurkako babes-neurri guztiak beteta. Lantegi horietako bat Karina Polevschikova-k eta, interprete gisa, Carolina Rementeriak eman zituzten, eta "Argazki teknikak smartphonetik abiatuta" zuen izena; eta bestea, "Bideo- eta muntaia-teknikak", Leire Viana eta María Asenjo AransGiko profesionalak eman zuten.

Amaieran, "normaltasun berria" izenekoaren inguruko bideo txiki bat ekoitzi zen.

Parte-hartzaileen balorazioa oso positiboa izan zen.

